

# Berrigara



## Tostoiien eta erreilenoen Kofradia

Domekan I. Batzar Nagusia



**MECA BERGARA**

Erakusketa eta tailerra

Amillaga 5. BERGARA

Tel. 943 76 40 68

**RENAULT**

clio



# Ierapaa...



**OMU**  
ZERAMIKAK



# Zeramika Arte unibertsala

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

**Urtebete egin dugu Ignacio Zuloagako erakustokian!**



## Tradizioa eta traizioa

Iñigo Iñurrategi / Irakaslea

**D**anborrada eta polbora usaina hedatzen dira urtero Irun eta Hondarribiko kaleetan barrena zorioneko alardearen ospakizuna dela eta. Zarata eta istilua behintzat sortu dute franko azken bi urte hauetan, eta ez da erraz asmatzen zer arraio gertatzen den kostaldeko herri horietan. Izan ere, herritarren arteko liskarra haunditzen joan da, zauria sakonduz, eta garai bateko tratua berreskuratzea ez da erraza izango hainbat kasutan.

Tradizioa omen da gakoa. Alegia, traizioa izan omen da Jaizkibel konpainiak buruturikoa, Guadalupeko amabirjiñari errespetua galtzea. Kanpotik ikusita konponbideak begibistako dirudien arren (hau da, emakumeek gizonezkoekin batera parte hartzea), zaila da oso arazoa ulertzea. Izan ere, ez dut uste herri hauek biztanleak, nahiz eta kostaldekoak izan, gu baino arraro edo bereziagoak direnik. Alegia, herri horietan gertatzen dena beste herri batzuetan ere errepika litekeela. Eta guztia tradizioa dela eta.

Zoritxarrez tradizio bihurtu dena gurean edozein arazoren aurrean indarkeria erabiltzea da. Agian Jaizkibel konpainiak munduko eskubide guztia izan dezake alarde horretan parte hartzeko, baina

Txaro Arteagak Ertzaintzak beraien esku-bideak bermatzeko indarra erabili beharra daukala eta lurtean zegoen jende multzoaren aurka egurka ekin beharra zeukala defendatzea... fabore gutxi egingen dio metodo errepresiboen alde dagoen emakume honek berak defendatzen duen taldeari. Auskalo nola eta noiz bukatuko den arazoa, baina bi aldeek ere amore eman beharra izango dute baldin eta konponbidera iritsi nahi badute. Ez ertzainen makilakadek ez eta tradizio hitz-potoloak ez baitute balio korapilo hau askatzeko.

*"Tradizioa omen da gakoa. Alegia, traizioa izan omen da Jaizkibel konpainiak buruturikoa, Guadalupeko amabirjiñari errespetua galtzea. Kanpotik ikusita konponbideak begibistako dirudien arren, zaila da oso arazoa ulertzea"*

Gurean, berriz, San Martinak ospatuko ditugu, baina ez dut uste hautsak harrotuko direnik. Izan ere, gurean ez dago horren sustraitua desfile kontu hau, eta antzera samar digu santuan lekuan edo errege mago baten lekuan emakumezko bat irtezea. Dena den, kontu haundiz ibili beharko ginatke eta historia ondo aztertu, garai batean jesuitek japonian egingakoak goratzea eta bertakoak pelikula-ko gaizto gisa antzetzea arrisksu iruditzen baitzait. Nahiz eta tradizioak horrela agindu. Beharbada, herritarren osasun mental eta espiritualarentzat egokiago litzateke desfile eta karrozatan diruak xahutu beharrean diru kopuru bat bideatzea Bergarako santu horren bizitzaren eta ekintzen inguruan ikerkuntza lan zehatz eta objetiboak burutzeko. Agian horrela tradizioak berme haundiagoa izango luke. Agian zenbait gauza aldatu beharrean geundeke. Baina seguru samar nago azterketa berdina Martinez Iralakoren kasuan egingo balitz, herritarrok konturatuko ginatkeela geure buruari burlaka aritu izan garela urteetan frontoi aurreko monolitoa zutik mantentzearen. Noski, hori, aparkatzeko lekuri topatu ezin izatea moduan tradizio bihurtu da, eta zaila izango da aldatzea...<

### barruan



#### Jesus Jauregi

Erreilenoen kofradiako kidea

*"Desfileetan janzkerak dauka garrantzia; jantziak deigarriak izan behar dira"*

19.



#### Igor Gutierrez

Bergara K.E.ko pilotaria

*"Bergaran harrobi ona dago baina salto handiegia dago kategorien artean"*

25.



#### Ion Landa

Argazkizalea

*"Mendixan izotz kandela bati atera notsan argazkixa daukat kuttunena"*

33.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK



## BEKAK

### Kolaborazio bekak.

Eusko Jaurlaritz. Goi-mailako unibertsitate ikasleak. Irakaskuntza lanetarako eta ikerketareko lehengo urratsak emateko. Epea: irailak 29.

### Jose Antonio Loidi Beka.

Irungo Udala. Goi mailako titulua; EGA. Euskaraz idatzitako ikerketak, honako esparruetan: antropologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia, botanika. Epea: urriak 11.

### Praktikak bertan zein atzerrian.

Eusko Jaurlaritz. 27 urte baino gutxiago; ekonomia, enpresa-ikasketak, ingeneritza edo arkitekturako titulua; hizkuntzak. Epea: urriak 2.

## IKASTAROAK

### Interbentzio komunitarioa.

HZ Zerbitzuak. Gizarte, osasun eta hezkuntza interbentzioko titulua dutenei bideratua. Ikastaro osoak edo seminarioak. Epea: urriak 16.

## SARIAK

### Julene Azepeita Ipuin Lehiaketa.

Zumaia Udala. Euskaraz idatzitako eta argitaratu gabeko ipuinak aurkeztu ahal dira. Epea: irailak 30.

### Jaime Brunet Saria.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Giza-eskubideak sustatzeko sortutako zientzia, literatura edo ikus-entzunezko arloan egindako lanak aurkeztuko dira. Epea: irailak 30.

### Zine eta bideoa.

Irungo Udala. 1965 eta 1982 urte bitartean jaiotako egileak. 1998 baino beranduago ekoizitutako lanak aurkeztuko dira. Epea: urriak 28.

### Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketa.

Azkoitiko Udala. Euskaraz idatzitako eta argitaratu gabeko ipuinak sarituko dituen lehiaketa. Epea: urriak 31.

## LAN-ESKAINZAK

### Kirol teknikaria. Orioko Udala.

Heziketa fisikoko magisteritza edo IVEF-eko lehenengo 3 urteak; gidatzeko baimena, sorospen ikastaroa. Epea: irailak 19.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregioko panelak  
Telefona: 943 77 91 57  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00  
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## ZORION AGURRAK



**Ion Frias**  
18an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Nekane eta etxeokak.



**Ione Urrea**  
20an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Miren, aitaxo eta amatxo.



**Julio Carazo**  
18an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Alazne Laskurain**  
17an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Maite Eraña**  
18an 19 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Iker Altolagirre**  
20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Eugeni Sagasta**  
16an 92 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Nerea Gonzalez**  
17an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Libe Stutter**  
21ean 4 urte.  
Urte askotarako eta muxu asko!  
Amama eta aitona.



**Julen Errasti**  
3an 20 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak eta familiakoak.



**Naiara**  
17an 24 urte.  
Urte askotarako!  
Irati, Hodei eta Aitzol.




**Beñat Bente**  
16an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.

*ESKER ONA*

## Sebastian Laskurain Zabaleta

Bergaran hil zen  
2000ko abuztuaren 11n,  
88 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

### San Juan

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria	
Irailak 7, eguena	24 °C	11 °C	—
Irailak 8, eguakitz	29 °C	12 °C	—
Irailak 9, zapatua	35 °C	15 °C	—
Irailak 10, domeka	36 °C	14 °C	—
Irailak 11, astelehena	24 °C	17 °C	3,4 l/m <sup>2</sup>
Irailak 12, martitzena	27 °C	17 °C	—
Irailak 13, eguaztena	31 °C	17 °C	—

## hildakoak

### BERGARA

**Anbroso Santa Maria Baños**

Abuztuak 2, 64 urte

**Nieves Ormazabal Gabilonda**

Irailak 13, 88 urte

### ANTZUOLA

**Antonia Aranguren Txintxurreta**

Irailak 11, 88 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

**Unai Otadui Sanz**

Irailak 5

## Farmaziak

### Eguakitz 15:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Zapatua 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Domeka 17:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Astelehena 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Martitzena 19:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguaztena 20:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguena 21:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

## Ogia

**Zapatua 16:** Mizpildi.

**Domeka 17:** Ogizun.

## Zozketak

**Osintxuko Kofraixak.**

Mallorcara bidaia 2 lagunentzat: **4.662**

**Xamatz eta Aritzetaoren zozketa.**

Txerria edo 50.000 pta.: **1.465**

*Hurrengo  
alean,  
irailaren  
15etik 21era  
bitartekoen  
zorion agurrak  
argitaratuko  
ditugu.*



**Amaia Oregi**  
20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.

URTEURRENA

Rosario  
Inza Duñabeitia

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose Mari  
Atorrasagasti Gantxegi

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Martin  
Guridi Arrieta

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Nikomedes  
Larrañaga Gallastegi

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Juan Murgiondo Etxabe

Kasimira Mujika Barandiaranen alarguna

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
goizeko 10:30ean,  
San Prudentzioko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Iñaki  
Iza Zabala

Bigarren urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Mila  
Palacios Garmendia

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik  
eskerrik asko Koldo Lasa eta sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Maria Teresa  
Arregi Jauregi

Lehen urteurreneko meza  
domekan, irailak 17,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ANTZERKIA

► **Jose Luis Coll**-en "Yo" antzezlan gaur, eguakitza, 22:30ean Elorrioko Arriolan.

## MUSIKA

► **Señor No, Astrozombies** eta **The Elevators** taldeak gaur, eguakitza, 22:30ean Kartzelan. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean, **Serial Numbers** eta **X-at**.

► Jam. Gaur, eguakitza, hilak 15, **Shelter, Ensign** eta **Nil** taldeak 22:00etan.

► **Cosmic Psychos** eta **Mobile Homos** taldeak bihar, zapatua, hilak 16, 21:30ean Go-Jam aretoan.

► **Arakajaun eta Potato** taldeak bihar, zapatua, 23:00etan Elgetako Gaztetxean.

► **Bergarako Orfeoia**ren emanaldia datorren eguakitzean, hilak 22, 20:00etan Loiolako Santutegian.

## ERAKUSKETAK

► **Maria Antonia Martinez**en margoak Kultura Etxean, domekara arte.

## LEHIAKETAK

► **Gazteak eta Arrazakeria XI. Argazki Lehiaketa**,

## ERAKUSKETA


### Eluska Zabalo

- Hilaren bukaerara arte
- Nahikari tabernan

Eluska Zabalo gazte arrasatearraren margo erakusketa ikusgai dago Nahikari tabernan. Zabalok 10 oleo jarri ditu ikusgai Nahikarin egiten duen bere hirugarren erakusketan. Lehenbizikoa orain duela bost urte egin zuen. Berak adierazi digunez, "gehienak paisaia urbanoak dira, arkitekturak. Espresionista alemaniarren lana asko interesatzen zait, eta pintura suelta, apurtua, jestuala egiten ahalegintzen naiz. Nolabait arkitektura aitzakiatzat hartuz, konposizio konstruktibistak landu izan ditut azkenaldian. Aurreneko helburua ez zen paisaia bera erakustea, baizik eta konposizioak egitea". Duela urtebete inguru margotutako lanak dira Nahikarin zintzilikatu dituenak, formato erdikoak gehienak. Eluska Zabalok 18 urte ditu eta txikitatik erakutsi du margolaritzarako dohaina. 11 urte zituela hasi zen margotzen, eta 60 sari inguru jaso izan ditu hainbat lehiaketatan; "aire libreko pintura lehiaketetan parte hartzeko ohitura daukat, baina sariena nahiko anekdotikoa da, nahiz eta jendeak garrantzia ematen dion".

Abdon Juaristi zenaren ikaslea izan zen Eluska, eta, besteak beste, Bingen de

Pedrorekin ere ikasi du. Aurten, Arte Ederretako ikasketak egiten hasiko da Leioako fakultatean; "betidanik argi izan dut hortik joko nuela. Ikastaro luze bat bezala ikusten dut fakultatean emango ditudan urteak. Ez daukat ikuspegi oso anbiziozorik. Azken batean, norberak egiten duen lana da benetan balio duena, eta aurretik pinturarekin harremana izatean, horrek ere ikaste prozesuan lagunduko nauela uste dut".



Argazkian, Eluska Zabalo margolari arrasatearra.

Debagoieneko 14-18 bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitarteko edozeini zuzenduta. Jorratu beharreko gaia gazteak eta arrazakeria izango da. Zuribeltza zein koloreko kategoriak bereiztuko dira, eta lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. Argibide

gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.

## IKASTAROAK

► **Argazki ikastaroa**, Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta, irailaren 25ean, 26an, 27an eta

urriaren 2an, 3an, 4an, 9an eta 10ean, 19:15etik 21:00etara Zabalotegiko lokalean. Plaza mugatuak. Izen-ematea (3.000 pta.) Kultura Etxean. Argibideak 943 76 30 90 (Benito).

► **Margo ikastaroa** Beartek antolatuta, urritik aurrera

# Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

## Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03

# Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Boluko lokalean, martitzen arratsaldeetan. 656 72 44 49.

► Udaleko Gizarte Ongizate sailak bi ikastaro martxan jarriko ditu: **mekanika eta elektrizitatea** batetik eta **diseinu eta patroigintza** bestetik. Argibideak: 943 76 91 24.

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak haurrei zuzendutako dantza ikastaroak antolatzen ditu. Era berean, helduendako ikastaroak ere izango dira zapatuetan. Informazioa: 943 76 15 40.

## DEIAK

► **Mendia Bizirik** taldeak urria-azaro bitarteko asteburu batzuetarako hegaztien mundua ezagutu nahi dutenentzat oinarritzko zenbait ekitaldi antolatu ditu, urriaren 6an, 7an, 21ean eta azaroaren 4an. Asier Sarasua ornitologo eibartarra izango da jardunaldien arduraduna. Argibideak Pol-Poleko bulegoan (943 76 48 51). Plaza mugatuak.

► **Xipizaro** ludotekaren ikasturte berriari astelehenean, hilak 18, emango zaio hasiera. Argibideak 943 76 23 76 zenbakian.

► **EHk** antolatutako asanblada eguaztenean, hilak 20, 19:00etan Miguel Altunako edifizio zaharrean. Aztertu beharreko gaia ildo politikoa izango da. Txostena Arranon eskura daiteke.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, irailak 20, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Bestalde, bailarako batzar orokorra urriaren 8an izango da, Arantzazuko hospederian. Argibideak: 943 76 22 36.

► **Arrasate Yoga elkarteak** antolatuta, "Osasun osagai eta bizitza kalitatearen jardunaldiak eta tallerrak" irailaren 18tik 22ra Arrasateko Monterron jauregian, 18:30ean.

► **AEK Akulu** euskaltegian matrikula epea zabalik irailaren 29ra arte. 943 75 05 18.

## JAIAK

► **Sagardo eguna** Elgetan bihar, zapatua. Arratsaldeko 5etan kupelak irekiko dira Plazan, Gaztetxean eta herriko tabernetan. Orduerdi beranduago Elgetako trikitilarien kalejira eta 18:00etan IV. Patata tortila lehiaketa. Ondoren, 19:30ean, sagardopoteo herrikoia eta 21:30ean afaria Plazan. Txartelak (2.000 pezeta) Haizea eta Patxi tabernetan.

## KINTADAK

► **1948an** jaiotakoan afaria Txuringon irailaren 30ean, 21:30ean. Joateko eta etortzeko urbanoa egongo da. Izen-ematea Euskadiko Kutxan irekitako kontu korrante zenbakian egin daiteke.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Yo, yo mismo e Irene**  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema

**Donde esta el dinero**  
Eguakitza: 22:00.

#### La tormenta perfecta

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

**Romeo debe morir**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztina, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

**60 segundos**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
**Shangai kid**  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

**Mision imposible 2**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.  
**OÑATI. Santana**  
**Esta abuela es un peligro**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### AZKOITIA. Baztartxo

**60 segundos**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.



### YO, YO MISMO E IRENE

**Zuzendariak:** Peter eta Bobby Farrelly.

**Aktoreak:** Jim Carrey, Renne Zellweger, Robert Forster.  
**ADIN GUZTIAK**

Farrelly anaiek izugarritzko arrakasta lortu zuten beren aurreko filmarekin (*Algo pasa con Mary*). Oraingoan ere komedia bat aurkezten digute eta Jim Carrey (*La mascara*) aktore ezaguna dugu protagonista nagusia, *Charlie Bailey* polizia zelebrearen papelean. Aktoreen jarraitzaileek ondo pasatuko dute filmeko egoera barregarriekin.

### LA TORMENTA PERFECTA

**Zuzendaria:** Wolfgang Petersen.

**Aktoreak:** George Clooney, Mark Wahlberg, Diane Lane.

▲ 13 URTE

Filme honek izugarritzko ikusmina piztu zuen estreinuaren aurretik, efektu berezien ikusgarritasuna azpimarratzen zen eta. Arrantzan ari den itsasontzi bateko mariñeek inoiz izan den ekaitz handienari aurre egin beharko diote...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!*

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

## Seminarioko rock taldeei Goiko estazioko etxea laga die Udalak

**Hainbat bileraren ostean, akordio batera heldu dira Udala eta Seminarioko zortzi rock taldeak. Udalak, taldeen eskariz, Goiko estazioko etxea utziko die taldeei.**

Azkenengo bilera joan zen eguenean izan zuten bi aldeek eta, aipatu bezala, adostasunera heldu ziren. Udalak, Goiko estazioko lokala utziko die eta egokitzen batzuk egingo dizkio egoitzari, instalazio elektrikoa esaterako. Rock taldeek, datorren astean bertan egin lezaketete trasladoo.

Taldeek lokal berria erabili ahal izateko hitzarmen bat sinatu beharko dute, Udalaren lokaletan dagoen edozein taldek egin behar



Datorren astean botako dute Seminarioko lokala seguruenik.

ARTXIBOA

izaten duen moduan. Bertan, taldeek bete beharreko baldintzak zehazten dira: lokala ondo zaintzea, ordutegia errespetatzea (10:00etatik 22:00etara) eta bolumen maila normal batean jardutea.

Horrez gain, Udalaren jabetza denez, ikuskatzaileak bertara joateko aukera duela ere zehazten da hitzarmenean. Udalak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea ere eskatzen zaie.

Musika taldeek lokala insonorizatu beharko dute, nahiz eta modu nahiko rustikoan izan. Udala egingo da materialaren kargu.

Goiko estazioko egoitzari dagokionez, bi zatitan banatuta dago: etxebizitza zena eta almazena. Momentuz, etxebizitza da musika taldeek erabili ahal izango dutena, almazena ez baitago oso egoera onean. Musika taldeek, almazena berrizteko eskatu diote Udalari tokia irabazteko. Izan ere, orain erabiliko dutena, etxebizitza hain zuzen, ez da oso handia, bost gela eta atikoa ditu, baina nahikoa txikiak. Orain arte Seminariokoan izan duten lokala datorren astean botako dute seguruenik.

## Errotonda egin berria konpontzea erabaki dute

**Ibargarai hiribidean** egindako errotonda berria zabaltzeko lanak egingo dira laster. Orain dela bi hilabete eraiki zen, Ibargaraioko rektan autoek har lezaketen abiadura handia gutxitzeko. Gainera, errotondarako sarrerak estuak egin zituzten eta baita errotonda inguratzen duen karrila ere, Udaleko iturrien arabera, gidariak abiadura oraindik ere gehiago murrizteko.

Errotondako sarreren estutasuna dela eta, Udalean hainbat herritarren kexak ja-

so dira; izan ere, oso deserosoa da gidatzeko, eta ibilgailu handiek nahikoa eragozpen dute errotondan sartu eta ateratzeko.

Udalak, bere aldetik, errotonda txikia dela ikusita, Gabonak aldera zabaltzeko lanak egiteko asmoa zeukan, nahiz eta herritarren erantzunaren zain egon den: hainbat herritar eta baita Pesa autobus enpresa ere kexatu dira. Hori dela eta, errotondaren erradioa zabaltzeko lanei bi edo hiru aste barru ekingo die Udalak.



Kexak jaso dira errotonda estuegia delako.

**LONBIDE**  
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 943 76 10 57



**IRURAK PINTURAK S.L.**

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32



## Maxim's erre egin da

### Guztiz kiskalita

geratu zen joan zen eguakitz goizaldean Maxim's taberna sute baten ondorioz. Sutea goizeko 7:00ak aldera izan zen, garbitzailea barruan zela. Hala ere, ez da zauriturik egon.

Ordu horretan, taberna paretik igaro zen herritar bat, Maxim's tabernako aire girotuaren hoditik kalera ke beltza ateratzen zela jabetu zen. Bien bitartean, taberna garbitzen duen emakumea, bertan zen lanean. Hala ere, ez zen hasiera batean suteaz jabetu, herritarrek jakinarazi zion arte.

Suhiltzaileak 7:30 aldera heldu ziren tabernara, eta sua berehala itzali zuten. Sua aire girotuan egondako akats elektriko batek eragin zuen. Maxim's tabernako nagusiek adierazitakoaren arabera, suteak eragindako kalteak handiak izan dira. Maxim's taberna 1971. urtean inauguratu zen. Datorren azaroan hogeita bederati urte beteko ditu.



## Belatz kantina itxita, ez delako inor esleipen lehiaketara aurkeztu

**Gorlako kantina** itxita dago irailaren 11tik. Orduarteko kantinako arduradunari kontratua amaituta, Udalak kantinaren adjudikaziorako baldintza plegua atera du. Ez da inor aurkeztu lehiaketara, eta Udalak itxita edukitzea erabaki du.

Kantinan hainbat obra egitekoa ere bada Udala: kantina handitzea eta ura Itxumendiko depositora

eramatea. Horri, kantinaz arduratzeko lehiaketara inor ez dela aurkeztu gehituta, lanak amaitu arte kantina itxita egotea erabaki du.

Kantina handitzeko lanak hasita daude dagoeneko. Urrian lan guztiak amaituko direla aurreikusten dute. Lanak amaituta, kantinaz arduratzeko baldintza plegua lehiaketara aterako du berriz Udalak.



Udala kantina handitzeko eta urez hornitzeko lanak egiten ari da. Urrian, lanak amaitu ostean, lehiaketara aterako du berriz.

# FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

## 2000-2001 ikasturtea

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA  
AZTERKETETARAKO PRESTAKETA  
UMEENDAKO FRANTSESA

Ikastaroaren hasiera:

# urriaren 2a

Izena ematea: irailaren 29ra arte

Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 17:00-19:00

## 943.76.30.55

# Feria arrakastatsuen ostean jaiak asteburuan

**Jende ugari** bildu zen joan zen zapatuan San Martingo feriarra. Eguraldiak ere asko lagundu zuen. Ferian, honakoak izan ziren atal bakoitzeko irabazleak: barazkietan, lehenengo saria Tomas Larrañaga, Antzuolako Lapatza baserrikoak jaso zuen; bigarrena, Jose M<sup>a</sup> Zabalegi, Martuteneko Olatxo etxeakoak, eta hirugarrena, Mercedes Urien Uberakoak. Herriko lehen saria Urrupain baserriko Maria Egizabalentzat izan zen.

Fruituen kasuan, irabazlea Antzuolako Bidaurre baserriko Kontxita Izagirre izan zen; bigarren saria, Gernikako Sonia Isasik jaso zuen eta hirugarrena, Azpeitiko Zumeta etxeak Jose A. Zumetak. Gazten atalean, lehenengo saria Zeraingo M<sup>a</sup> Angeles Inurategirentzat izan zen; bigarrena, Idiazabalgo Jesus Aranbururentzat, eta hirugarrena, Bergarako Aierdi baserriko J. J. Murgiondorentzat.

Lore moztuetan, sariduna Uberako Intxaurrenondoko baserriko Begoña Arteaga izan zen. Etxeko loretan, Murinondoko Etxe Alai baserriko Fidela Gabilondok eraman zuen saria.



Seminarioan gazta, eztia, kontserbako janaria... egon ziren salgai.



Zapatu gaueko afarian 350 lagun inguru bildu zen haragi gisatua jatera.

Arratsaldean, Okela Gisuaren Bergarako I. lehiaketa egin zen San Martin plazako arkupeetan. Bost taldek hartu zuten parte, eta irabazleak hauek izan ziren: lehenengo saria, Artatse elkarteak Mikel Ariznabarreta

eta Xeferino Mondragonek jaso zuten; bigarrena, Uberako Jaolatzak elkarteko Merteze Gaztelu eta Bittor Lamarriok, eta hirugarrena saria, Lasai-Toki elkarteak Patxi Aranzabal eta Juan Sanchezek.



Mikel Ariznabarreta eta Xeferino Mondragon, lehiaketako irabazleak.



San Martin plaza zapatu goizean.

## EGITARAUA

### EGUAKITZA 15

- 19:00** Trapu Zaharra taldeak, "Paquetillo" kale antzerkia aurkeztuko du.
- 19:30** Bikoteen Dantza Askatuko XVI. Txapelketa, Moises Azpiatzuren oroimenez Udal Pilotalekuan.
- 22:30** Nagusien Danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta.
- Ondoren**, Egan taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

### ZAPATUA 16,

#### San Martin Agirre eguna

- 08:00** Diana Udal Txistulari Bandarekin.
- 08:30** Sokamuturra herriko kaleetan zehar.
- 11:00** Meza Nagusia San Pedron. Udal Korporazioa joango da, Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Bandarekin batera.
- 11:00** San Martin plater tiraketa, antzinako abankargazko armenkin, Goriako kantina inguruan.
- 12:00** Udal Musika Banda kalejiran.
- 12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.
- 16:00** Euskal Herriko VI. Goiti-behera txapelketa. Asentziotik Angiozarrera.
- 16:30** XI. San Martin herri krosa, herriko kaleetan zehar, San Martin plazatik irtenda.
- 17:00** Profesional mailako pilota partidak, Udal Pilotalekuan.
- 19:00** Haurren danborrada, Musika Eskolako Bandarekin.
- 20:00-21:00** Dantzaldia, Paradigma orkestrarekin, San Martin plazan.
- 22:00** Suzko erroberak Udal igerilekuan, Pirotecnia Zaragozana etxearen eskutik.
- 23:00** Rock kontzertua, Zea Mays taldearekin, Fraiskozuri plazan.
- Ordu berean**, dantzaldiaren jarraipena, Paradigma orkestrarekin, San Martin plazan.


### DOMEKA 17

- 09:30etik 14:30era**, hainbat ekitaldi egongo da Erreileno eta tostoin Kofradiaren I. Batzar Nagusia ospatzeko.
- 19:00** Naturgas-en lotutako globon-igoera, Seminarioko patioan.

# Sevillarrentzat ere, Bergarakoa zen Igokundeko San Martin

**Dokumentu** esanguratsua izan daitekeena luzatu zidan uda aurretik Jose Garmendia zaldibitarrak. Hogeita hamar urtetik gora eman zituen apaiz Sevillan eta garai hartan aritu zen bertako Archivo de Indias delakoan euskaldunen arrastoak jaso eta hainbat libururik eta aldizkaritan argitaratzen. Dokumentuaren arabera, gaur egun desagertuta dagoen Sevillako San Francisco komentuan ospakizun bereziak antolatu zituen Igokundeko San Martinen omenetan 1628an, anaia Martin beatifikatu zuten urtean. Hogeita hamasei urte lehenago egon zen bera komentu hartan; bazeukaten beraz, Martin nor eta nongoa zen jakiteko nahikoa ezagupiderik!

Jakina da gero santu egingo zuten anaia Martin Sevillan izan zela Nueva Españara (gaur egungo Mexiko) lehenengo eta gero Japoniara abiatu aurretik. Erabakita zeukan urrutiko lurralde haietan kristautasuna zabaltzeko predikari lanean aritzea eta, bere fedea frogatzeko, Sevillarainoko bidea oinez egin zuen, itsasontzia hartuko zuen lekuraino. Bidean beste erlijioso batzuekin egin zuen topo eta elkarrekin joan ziren. Kantuan eta errezatzen aritu ziren txandaka, gau eta egun geratu gabe. Sevillan San Francisco komentuan hartu zuten atseden. Egun batzuk igaro ondoren, Sanlúcar de Barramedan bat egin zuten misioa osatzen zuten beste erlijiosoekin eta Juan de Uribe jeneralaren itsasontzian Nueva Es-



1788an San Francisco komentuan eskritura eta tituluen zerrendategia egiterakoan idatzi zutena.



Jose Garmendia, Sevillan apaiz izandakoa eta ikerlaria.

pañarantz abiatu ziren 1592ko maiatzean. Handik ia bost urtera, 1597ko otsailaren 5ean, gurutziltzatu zuten Nagasakiko Nishizaka mendixkan. 1628an beatifikatu zuten eta 1862an kanonizatu.

1788an komentuko kaperak bateko eskritura eta tituluen zerrendategia egin zutenean hona hemen zer idatzi zuten: "XIII. Están unidos varios Documentos relativos a las fiestas que celebrò esta capilla en el convento de San Francisco en 27 de Mayo de 1628, al Santo Mártir San Martin de Aguirre, natural de la villa de Vergara en la Provincia de Guipuzcoa." Goian aipatu bezala, antolatzaileetako bat edo beste ere San Martin ezagututakoak izan

zitezkeen edota haren berri zuzena izandakoak; beraz, izen-deiturak eta jatorria horrela idatzi bazuten, zerbaitengatik izango zen.

Beatifikazioa ospatzeko zortzi eguneko festa antolatu zuten Sevillan San Francisco komentukoek. Jose Garmendiak 1984ko BRS-VAP aldizkarian jasotzen du ospakizunen berri, Juan de Acherreta kadiztarrak 1628an argitaratu zuen hamasei orrialdeko idazki batean oinarrituz. Honela zioen azken honek suzko erroberak egin zireneko gauari buruz, Bergaran gertatzen den bezala ekitaldirik ikusgarrienera izanik: "(...) en aquesta ocasión quiso revalidar sus glorias, mostrándose dadivosa, pía y devota (no sólo por lo general, sino por ser de su nación el santo Mártir Fray Martín de Aguirre) gastando en esta fiesta más de dos mil ducados. Fueron los fuegos que hizo esta nación tan celebrados en toda la ciudad, que hasta entonces parece que no se avia conocido la fuerça y estruendo de este elemento fuerte, en fiestas. (...)" Argi dago gau hartako durrundara ez zela nolana hikoia izan. Hurrengo

egunean prozesioa egin zuten, eta honela deskribatzen du Acherretak San Martinen irudia: "Luego se siguió el Santo Martir Martín de Aguirre, con un hábito de sayal de tela de plata, tejido de intento para este fin; bordada la fimbria de S.S. de diamantes y la capilla de joyas muy preciosas. Era la cuerda de oro y piedras diferentes. Peana y Cruz de plata con mucha perfección y mucha obra de curiosidad y gastos. Acompañaban al santo copia de ministriles y doze ciryos blancos." San Martinen Sevillako egonaldiak izan zuten gerora eragin nabarmena komentuan eta hirian. Berdin gertatu zen Cadizen ere, han ere egin baitzituen egunak. Gaur egun, Cadizko katedralean Igokundeko San Martinen irudia ikus dezakegu, San Ferminenaren alboan.

Garai hartako testigantzek argi uzten dute San Martin Agirreren garrantzia eta oroitzapena, eta beti bere abizena aipatzeaz bat, bere jatorria ere agerian uzten dute.

Miguel Angel  
Elkoroberezibar

# Berrigara

421 zenbakia.  
2000ko irailaren 15a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.

Telefonoa: 943 76 03 97

Faxa: 943 76 29 77

Posta elektronikoa:

berrigara@topagunea.com

Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.

Erredakzioa: Monika Belastegi,

Aintzane Irizar, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa: Iban Arantzabal.

Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,

M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,

Estepan Plazaola.

Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,

Usoa Mendikute, Gorka Ortega &

Jon Alvarez, Bitor Rodriguez, Alex Ugalde.

Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,

Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. Elk.

(Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriritzako  
Kultura saila

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### EAJ ETA EAK BOTA EGIN DUTE EH UDAL GOBERNUTIK

Joan zen asteko BERRIGARAK ondo azaldu zuenez, Euskal Herriarrokero kideok Bergarako Udaleko gobernutik kanpo gelditu gara. Gure ustez, informazio hori motz geratzen da, ez duela esaten EH Udaleko Gobernu Batzordetik eta Ingurugiro eta, Euskara eta Hezkuntza batzordeen arduetatik EAJk eta EAK dekretuz bota egin dutela. EH Gobernu Batzordetik kanpo "geratu" baino egokiagoa egun batetik bestera kanporatu egin dutela esatea izango litzateke. Gainera, kanporatzeko erabakia ez da izan azkenengo urtean EH, EAJ eta EAren arteko elkarlana txarra izan delako, alderantziz baizik. Akordioak iraun duen urte honetan zehar garbi gelditu da abertzaleen arteko elkarlana posible dela eta hortik etorriko dela Euskal Herriak bizi duen gatazkaren konponketa. Horregatik, penagarria iruditzen zaigu, Madrileko gobernuaren eta espainiar komunikabideen presioei jarraituz, EAJ eta EAK hartu duten erabakia. Udaleko Gobernu Batzordetik eta arestian aipatutako batzordeen arduetatik kanporatuak izan garen arren, Bergarako Euskal Herriarrokero zinegotziok Bergararen alde lanean jarraituko dugula jakinarazi nahi

diegu herritarrei, batzordeetan eta plenoetan parte hartuz. Horretaz gain, gure helburua berriz ere abertzaleen arteko elkarlana bultzatzea izango da, beti ere Euskal Herriaren independentzia eta pakearen alde lan egiteko.

*Bergarako  
Euskal Herriarrokero*

### EUSKARAK EZIN DU ITXARON

Orain arte instituzioetatik ia laguntzarik jaso gabe, herritik sortu diren ekimenez euskarak aurrera egin du. Baina inolaz ere ez dugu lortu oraindik etorkizuna bermatzea.

Horretan, gaur egun Euskal Herriak eta euskarak nozitzen duten marko politikoak eragin oso nabaria du. Euskararen lurraldea bost zatitan banatuta dago: iparralde (ez da hizkuntza bezala onartua), EAE (sasi-ofizialtasunaren eraginpean) eta Nafarroa ("Ley del vascuence"ak hiru zatitan banatua).

Lege hauetaz gain, Estatu espainolak eta frantsesak euskararen aurkako erasoaldi bortitza antolatu zuten. Estrategia honek, jopuntuan izan ditu ikastolak, AEK, UEMA, etab. Honen aurrean Korrika, Bai Euskarari, Kilo metroak eta beste hainbat ekimen euskararen berreskurape-

nerako oinarriak jartzen ari dira. Baina erasoaldi latz honen aurrean ez dira nahikoa euskararen etorkizuna ziurtatzeko.

Hala, orain dela urtebete baino gehiago Euskal Herriko lehen instituzio nazionala martxan jarri zen: Udalbiltza. Honek, abertzale eta euskaltzaleen esperantza piztu zuen. Azkenean, alderdi politiko batzuek euskara eta Euskal Herria osoaren defentsarako instituzioa martxan jarri baitzuten.

Baina usteak erdia ustel. Gauri bateko une gozo haiek benetan garrantzitsu bilakatu dira. Erasoaldiaren defentsarako balio behar zuen instituzioa PNVk eta ondoren EAK blokeatu egin dute, nolabait ere EHrekiko distantziak zabaltzearen. Lehenik eta behin, Jaurilaritzako aurrekontuetatik eta beste instituzio batzuetatik heldu beharreko diru partidatik kenduz; ondoren, EAK ordezkariek Udalbiltza utzi.

Zein abertzale edo euskaltzalek ulertzen du hau? PNV eta EAren jarrera honek euskara biluzik utzi du erasoan aurrean eta, bereziki, egoera kaxkarrena jasaten duen tokietan: Nafarroan eta Iparraldean.

Euskarak ezin du itxaron! Utzi alderdikeriak eta ekin lanari!

*Euskal Herrian  
Euskaraz*

## tira biraka alex ugalde



atrebentzia ezpada

## Kalietan komun publikuak biharrezkuak diela pentsatzen jatzu? Zergaittik?



**Delia Gonzalez**

Biharrezkua pentsatzen jat. Askotan umiakian kalia zarella, txizaguria sartzen bajako, kalia egin bihar izaten dabelako, adibidez.



**Teresa Otal**

Bai. Komun publikorik ez badago, jendiak kalia egitten dau txiza, eta usaiña egoten da. Hemen ez dare, eta egon biharko litzakez.



**Javier Fernandez**

Bai. Kalia txizaguria etortzen bajatu, nun egin egon bihar da. Bestela, kalia egittera bihurtuta zare, eta hori oso zikiña da.



**Antonio Martin**

Biharrezkuak die. Lehenago bazeren, baiña kendu egin zittuzten. Gogua sartu ezkeru tabernan sartu bihar izaten zara.



**Larraitz Zubia**

Bai. Ez dare, eta txizaguria etorri ezkeru, taberna batera sartu bihar zara. Baiña tabernarixei ez jakue gustatzen.



**Oihane Larrañaga**

Komun publikuak biharrezkuak die. Bestela jendiak kalia egitten dau txiza eta usain oso txarra egoten da bazterretan.

bai, esan!




Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

### APARKALEKUEN BEHARRA DELA ETA

**Jose Fernandezek** herrian aparkalekuekin dagoen arazoaren gainean kexa bat adierazi nahi du. Herrian diren obrak direla eta, aparkaleku kopuruak nabarmen behera egin du azken hilabeteetan eta garajerik ez duenez, gero eta gehiago kostatzen zaio Joseri bere kotxea aparkatzea. Aste honetan bertan, gainera, astelehenean, Miguel Altuna institutuko sarreraren parean, hiru bat aparkaleku erreserbatuta zeuden bi aulki eta zinta bat jarrita eta hori egin zuenak horretarako baimenik zuenik zalantzak ditu, normalean Udaltzaingoak seinale bereziekin markatzen baititu horrelako esparruak. Fernandezek guztion kolaborazioa eskatu nahi du aparkalekuen arazoa konpontzeko.



*Gozogintzan aintzindari.*




**Taberna berriztua**

**Ondo pasa ditzazuela jaiak eta zatozte Tartufo erara prestatutako oilaskoa champanarekin dastatzera, gure taberna-terrazan.**

**Menu bereziak jatetxean**

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.



Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

adituen esanetan

## Paseko hegaztiak

Europako hegaztien %40 migratzaileak direla kalkulatu da. Beraz, 5.000 milioi inguru hegazti dira udazkenean eta udaberrian bizilekua aldatzen dutenak. Gehiengoak sasoi honetan egiten du migrazioa. Hazkuntza sasoiaren ondoren, Europa osoa zeharkatzen dute, iparraldetik hegoaldera, negua Mediterraneo aldean edo Afrika iparraldean igarotzeko asmoz.

Ibilbide migratzaile nagusietako bat Euskal Herritik igarotzen da, Pirinioak eta Kantabria artean dagoenez, bertan bat egiten dute ibilbide atlantikoak eta kontinentalak. Aurrera segitu beharrean, hegazti asko gure inguruan geratzen dira atseden hartzeko. Zenbait kasutan denbora luzez geratzen dira gure artean. Kasu nabariena hegazti urtarren kasua da, beharbada. Hegazti hauek habitat jakinen beharra daukate, eta, zoritxarrez, baldintza nahikoa eskaseta dira gure inguruko aintzirak, ibaiak, hondartzak, estuarioak edo erriberak. Hala ere, badira baldintza nahi-



JUANJO NOGUEIRAS


Naturzalea

*"Ibilbide migratzaile nagusietako bat Euskal Herritik igarotzen da eta hegazti asko gure inguruan geratzen dira atseden hartzeko"*

ko egokietan diren lekuak ere.


Bergararik gertuan, Urkuluko enbalsean, Aretxabaletan, milaka hegazti biltzen da negua igarotzera. Beste espezie batzuen artean, lertxun hauskarak (*garzas reales*), ubarroi handiak (*cormoran* handiak), murgilari arrunta (*porron pardo*) edota arrano arrantzaleak ikus ditzakegu bertan. Hegaztiak gertutik ikusi ahal izateko, nahikoa da Ullibarri-Ganboako enbalsea hurbiltzea, bertan baitago Mendixurreko parke ornitologikoa.

Ikuskizun ederra izaten da. Aipatutako parkean estrategikoki jarritako bi behatoki daude, hegaztiengandik ezkutatzeko estalki begetalez inguratuta daudela. Behatokiaren barruan hainbat espeziaren inguruko panel identifikatiboak daude eta hegaztien gida-liburu bat. Gainera, egunean egindako behaketak bertan dagoen koadernoan egin daitezke. Horrela, hegaztiak ezagutzeko toki oso aproposak dira horrelako behatokiak.



Ullibarri-Ganboan honelako Koloredun ahateak aurki daitezke. JUANJO NOGUEIRAS

bergarako errotak



## BARRUTI-BOLU

Francisco Gallastegi Iribecampos (62 urte) eta Pablo Elkoroiribe Lizarriturri (31 urte) ziren Barruti-bolu errotan errotari lanetan zihardutenak 1890eko zentsu ofizialaren arabera.

1895ean Francisco Gallastegi agertzen da errotari moduan.

Aurretik ere errota moduan funtzionatu arren, irina egiteko errota 1927an izendatuko da "publiko" Pablo Elkoroiriberen izenean. 1939an H. Elkoiribe Lizarriturriren izenean agertzen da eta hamar urte beranduagotik 1963ra egongo da alta emanda errota moduan. 1962tik aurrera Matias Elkoroiribe Gallastegik ordainduko ditu tasak eta okindegi moduan ere agertuko da lehenengoz.

1930ko G.B.O.:

*"Bergarako Pablo Elkoroiribek eskatu zuen izena ematea uren erabilgarritasun erregistroan Elgetako erretena erabiltzeko aukera izateko. Barrutia errotarekin argi-indarra ateratzeko egin zuen eskaera. Ubideak zuen emaria 150 litro segundukoa zen eta egiten zuen saltoa 3 metro eta 60 zentimetrokoa da.*

*Publiko egiten dena..."*

Antzerako eskaera egiten da 1956ko G.B.O.-ean, baina orainoan, Matias Elkoroiriberen izenean.

Azkenengo errotaria Antonio Elkoiribe izan zen, 1933an jaio zena.

"Elgeta-erreka"-ko urarekin mugitzen ziren burdinezko sorkiekin eraginda zeuden bi harri pare handi.

Artoa eta garia ziren errota honetan ehotzen zirenak 1951n errota gelditu zen arte.

Harria xehatzeaz ere bera arduratu zen eta berak ezin zuenean Paulino Gazteluk laguntzen zion.

KOKAGUNEA: Bergara eta Elgetako bidegurutzean, Elgetako erreteneko urak eta Deba ibaiko urekin.

Antxon Agirre Sorondo



Udazken-neguko kolekzio berria

# BASTER

Irala z/g. 943 76 10 08





**Berriztua**

Osintxu

**ALAI**

Elgeta

**Dia**

# Peugeot 206

## Zeuk jarri muga



**1.395.000\*** pta.tik aurrera

\*BEZ; matrikulazio zergak Prever-ekin; eta promozioak barne

### Alai Garajea


943 76 22 96. Urarte 12, Bergara.  
Peugeot zerbitzu ofizial berria

## 206



PEUGEOT

# ARREGI AROZTEGIA



### SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak

PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga 20. 943 76 11 73

Erakusketa Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03





## 2000garrenean baietz

**Udal Euskaltegian** udan ibili diren ikasle-  
etako batzuek eguakitzean bukatu zituzten  
klaseak. Ikastaroaren lehen zatiari amaiera  
emateko, uztailaren 21ean "2000garrenean  
baietz" kantatuz ederki pasatu zuten, hama-  
rretakoa egiten zuten bitartean. 11 ikaslek  
hartu dute parte **EGA ateratzeko ikasta-  
roan**. Ea bada, EGA eskuratzen duten!

## Susana eta Gotzon

**Susana Perez eta Gotzon Arzelus** aurreko zapatuan, irailaren 9an, ezkondu ziren. **Maria-  
ren Lagundian** egindako elizkizunean elkarri baietza eman ondoren, senideekin eta lagune-  
kin bildu ziren Lasa jatetxean egindako bazkarian. Guztiak ondo baino hobeto pasatu zuten.  
Gotzon eta Susanaren koadrilakoek berriz ere ezkonberriak zoriondu nahi dituzte. Ezkonbidaia  
egitera **Tanzaniara eta Seychelle irletara** joan da bikotea. Ondo pasa eta laister arte!



## Arrateko aterpetxean

**Jarduneko "Antxitxika"** programaren ba-  
rruan, 7-11 urte bitarteko 16 gaztetxo egon  
dira **Arrateko aterpetxean**, irailaren 1etik  
7ra, **Eider Aranzabal, Ana Belen Carpintero,  
Maria Unamuno eta Maribi Visita-  
cion** begiraleekin. Helburuetako bat 24 or-  
duak euskaraz biziitzea zen. Ikasteaz gain,  
aisialdirako tarteak ere izan dute guztiak eta  
primeran pasatu dute elkarrekin.

## Panel berriak herriko sarreretan

**Debagoieneko Mankomunitateak** panel berriak jarri ditu egu-  
notan bailarako herrietan. **Antzuolatik Bergararako sarreran,  
San Lorentzon eta Beheko Estazioaren inguruan** bisitariei ongi-  
etorria ematen dieten panelak jarri dira, Jaurlaritzako Turismo Sailak  
egindako diseinuari jarraituz. Panel hauetan, **Arreseko balkoia eta  
Laureaga etxea eta ondoko zubia** ikus daitezke. Aipatutako kar-  
telak lehen Udalak jarritako panelen osagarri lirateke. Era berean,  
Osintxuko bariantean, **Debagoieneko sarrera** iragartzen duen kar-  
tela ere jarri da.



# .....Berrigara Gida 2001

Berrigara Gida 2001, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestatzen dihardugu.

## **Uxue Zabaleta eta**

**Uxue Lazkano** (argazkian) arituko dira komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko dituzte.



Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2001 liburutxoak:

## **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefona edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97**.

## Berrigara



Bergarako kofradeak Donostian egin zen batzar nagusi bateko desfileen. Kofradia sortu zenetik 14 bat herritan egon dira.

# Tostoiek eta erreilenoek badute euren kofradia

## Kofradeek gozo hauek defendatzea zin egingo dute domekan

**Urte hasieran hasi zen lagun talde bat lanean erreileno eta tostoien kofradia bat eratzeko asmoz. Bergaran eta inguruan oso ezagunak diren arren gozo hauek, leku askotan ezagutu ere ez dituzte egiten, eta horixe da, hain zuzen ere, Bergarako kofradia honen helburua: Bergarako produktu tipiko hauek ezagutzera eman eta bultzatzea. Horretarako, datorren domekan, hilak 17, egingo dute beraien lehendabiziko Batzar Nagusia, San Martin jaiak direla aprobetxatuz. Egitarau zabala antolatu dute egun horretarako, eta beste 14 bat kofradiatako kideak ere izango dira bertan.**

**A**rabako Patataren Kofradiako kideak dira duela lau urtetik Jose Mari de Borja eta Jesus Jauregi bergararrak. Hortik sortu zitzaizen kofradia hau sortzeko ideia. Bergaran erreileno eta tostoiak bezalako produktuak izanda, zergatik ez sortu hauek bultzatzeko kofradia bat herrian? Bada,

esan eta egin. Hasiara batean, otsailean, jende nahikoa biltzea kosta egin zitzaizen arren, gaur egun 28 kofrade dira.

Euskal Herrian 40 kofradia ingurudago, eta denetarik produktuak promozionatzen dituzte: txuletak, piperrak, txapelak, alpagatak, gazta...

Jesus Jauregi kofradiako presidentek azaldu digun bezala, euren helburu nagusia produktu hauek bai Bergaran eta bai Bergaratik kanpo ezagutzera ematea eta promozionatzea da. Baina badituzte bestelako helburuak ere Jauregiren esanetan: "produktuak promozionatzeaz aparte, gozo hauen kali-

tatea bermatzea eta hobetzea ere bilatzen dugu". Gainera, kofradia bakoi-tzak urtean behin ospatzen du bere batzarra edo kapitulua eta honek "hainbat jende eta herri ezagutzeko aukera polita ematen digu". Bergarako kofradia berri honetako kideak euren burua ezagutzera eman eta beste kofradia batzuk ezagutzeko asmoz, dozena bat inguru herritan egon dira, eta bertako batzar nagusietan parte hartu dute. Orain, beraien txanda heldu da.

**AITORTZEN DUT...**

Ekitaldi mordoan antolatu dituzte bergarar kofradeek domekarako. Euskal Herriko eta Espainiako 14 bat kofradiatoko kideak etorriko dira, eta goizeko 9:30ean frontoian egingo diete harrera hamarretako eder batekin. 10:30ean, berriz, Musika Bandak, Txistulariek eta Txarangak lagunduta desfile bat egingo dute kofradia guztiek.

Goizeko hamaiketean izango da eguneko ekitaldi nagusia Udaletxean: Batzar Nagusia. Bertan, lehenengo urtea denez, Bergarako erreileno eta tostoien kofradiako kide guztiek gozo hauek beti defendatu eta bultzatuko dituztela aitortu beharko dute gainerako kofrade guztien aurrean. Ekitaldi honen ondoren, hainbeste urtetan erreileno eta tostoiak egin eta mantendu dituzten gozotegiak ohorezko kofrade izendatuko dituzte: Larrañaga, Mujika, Alzelai eta Raizabal. Eguerdiko 12:30ean meza entzun ostean, plazarainoko desfilea egingo dute. Eguardiko 14:30ean, Lasa jatetxean bazkari ederra izango da nahi duen guztiarentzat.

**GREMIOEN BILERA**

Gaur egun ezagutzen ditugun kofradia guztiek, lehen esan bezala, produktuak bultzatu eta promozionatzeko helburua duten arren, euren jatorria gremioen bileretan aurkitzen dugu. Gremio bakoitzeako artisauek guztiak urtean behin elkartu eta urteko gorabeherak elkarri kontatzen zizkieten: salmentak, izan zituzten arazoak, prezio aldaketak eta bestelakoak. Bilera hori egin ostean, urtean zehar hildako gremioko kideen alde meza bat ospatzen zuten. Denborarekin gremioak gremio bezala desagertuaz joan ziren. Gremioen bilerak egiteko tradizio zahar haren lekuko ditugu, beraz, kofradiak, nahiz eta helburuak aldatu diren.



Kofradiakoek erreileno eta tostoien historia eta errezetak batuko dituen liburu bat ere argitaratu nahi dute.

**MAHOIAK ERE BADU BERE LEKUA**

Erreileno eta tostoiak, beraz, badute dagoeneko euren kofradia, baina mahoiak bera ere Bergarako produktu tipikotzat har liteke. Bergarako kolorea dela ere esan daiteke. Kofradiako kideek ere ez dute ahaztu hori, eta euren kofradia erreileno eta tostoiak bultzatzeko sortu baldin bada ere, bere lekua eman nahi izan diote mahoiari, eta mahoi koloreko jantziak egin dituzte. Edozein kofradiatan da garrantzitsua uniformeak, eta baita Bergarako honetan ere. Mahoi koloreko kapa bat eta txapel bat janzten dute kofradeek joaten diren batzar nagusi guztietan. Hala ere, mahoiak aparte, erreilenoak egiteko ezinbesteko osagaia den arrautza gorringoak ere hartzen du bere tokia jantzietan, hori koloreko ponpoi bat daukate eta txapelean, gorringoaren lekuko gisa. Jauregik dioskunez, "desfileetan batez ere garrantzia handia dauka janzkerak, eta deigarria izan behar du, gainera. Batzuek antzinako jantziak be-


reskuratu nahi izaten dituzte. Guk, berriz, kofradia askotan tipikoak diren kapa egin ditugu, baina, Bergarakoak izanik, ezinbestekoa iruditu zitzaigun mahoi kolorekoak izatea".

**HISTORIA EZAGUTU NAHIAN**

Kofradia hau sortu zutenean Jose Mari de Borjak BERRIGARARI esan zion bezala, erreileno eta tostoien historia eta errezetak batuko dituen liburu bat argitaratu nahiko lukete kofradeek. Baina ez da batere lan erraza, eta oraingoz, behintzat, ez dira ezertan hasi. Jauregik esan digunez, nahikoa lan eduki omen dute domekako egitaraua prestatzen. Dena dela, badira Bergarako gozogileren batek San Martin jai batzuetan egin zituela lehen aldiz esaten dutenak. Jaietan jende askok probatu ei zituen eta baita sekulako arrakasta lortu ere. Horregatik erabaki zuten San Martin jaietan ospatzea euren "kapitulua", eta hemendik aurrera ere, urtero, garai honetan ospatzeko asmoa dute. Beste batzuen arabera, berriz, klarisak izan ziren bi gozo hauen errezetaren asmatzaileak, baina ia ziurra da biak batera asmatu zirela. Izan ere, tostoiak arrautza zuringoarekin egiten dira, eta erreilenoak, berriz, tostoiak egiterakoan erabiltzen ziren arrautzen gorringoak aprobetxatzeko modua zen. Noizkoak ote diren galdetutakoan honakoa esan digu Jesus Jauregik: "Larrañaga gozotegian dakitenaren arabera, 100 urtetik gora daukate errezetok". Beraz, Batzar Nagusiaren ondoren, ia zerbait ikertzeko aukera duten eta bergarar guztiok ikasten dugun zerbait gehiago pastel goxo hauen inguruan.<

**Kofradien jatorria garai bateko gremioetan dago; urtean behin elkartu eta urteko gorabeherak tratatzen zituzten**

**%30**



**Deskontua marka onenen eguzkitako betaurrekoetan**

Calvin Klein  
eyewear

Carolina Herrera

**CHANEL**

Christian Dior  
ESCADA

GIANFRANCO  
**FERRE**  
LUNETTES

GIORGIO ARMANI  
OCCHIALI

**GUCCI**

**MOSCHINO**  
OCCHIALI

*Persol*

VALENTINO

**VOGUE**  
occhiali



**P. MANSO**  
Optika

Irizar 2.  
943 76 27 86



**UGARTE**  
A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



**Ondo pasatu jaiak!**

San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91

Herri osoan barrera ibili ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo barregarriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago aurkitzeko. Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldirak irakurtzeko. Ele egiteko. Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Telesailak ikusteko. Bertsoarietan esaten dutena ulertzeko. Euskal Herriko irakurle ibili ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo barregarriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago aurkitzeko. Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldirak irakurtzeko. Ele egiteko. Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Telesailak ikusteko. Bertsoarietan esaten dutena ulertzeko. Euskal Herriko irakurle ibili ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo barregarriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago aurkitzeko. Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldirak irakurtzeko. Ele egiteko. Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Telesailak ikusteko. Bertsoarietan esaten dutena ulertzeko. Euskal Herriko irakurle ibili ahal izateko.

# Aukera paregabea



2000-2001 ikasturtea

## Euskara ikastaroak

- Euskalduntze maila guztiak
- EGA astebarruan eta larunbatetan
- Gurasoak, merkatariak, enpresak...
- Udaleko dirulaguntzak

Izena emateko azken eguna: irailaren 29a  
Bulego ordutegia: goizez 10:00-12:30; arratsaldez 17:00-19:30  
BERGARAKO AKULU AEK EUSKALTEGIA  
Masterreka 13, behe. 943 76 05 18

# æk

izena eman

Lagunartean ospa  
ditzagun feria,  
danborradak,  
sokamuturra,  
musika, dantza,  
antzerkia, suzko  
erroberak...



**BERGARAKO UDALA**

## Ondo pasatu San Martin jaixak!

## Astelehenetik aurrera zabalik izango dira barruko igerilekuak

### Zapatuan udako kanpainari amaiera emango zaio

**Astelehenean, hilak 18, zabalduko dira Agorrosingo barruko igerilekuak. Kanpoko igerilekuak bihar, zapatua, 14:00etan itxiko dira, gauean bertatik jaurtiko baitira suzko erroberak. Domekan itxita izango dira kanpoko piszinak.**

Astelehenetik aurrera kanpoko gunea eguzkia hartzeko ere ezin izango da erabili, udan piszinetan lanean ibili diren langileek beren zereginari utzi egingo diote eta.

Barruko igerilekuak goizeko 7:00etatik gaueko 21:00ak arte izango dira zabalik astebarruan. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, berri, 8:00etatik 19:00etara zabalduko dira, lehengo ordutegiari eutsiz. Azken hil hauetan asko hitz egin da barruko igerilekuen berrikuntzaz, baina Yosune Linazisoro Kirol Zerbitzuko arduradunaren esanetan, "Diputazioko ordezkariekin izan ginen duela hilabete batzuk arazoari irtenbidea topatzeko, barruko igerilekuek aspalditik ez baitute indarrean dagoen legedia betetzen hainbat puntutan.



Zapatuan 14:00etan itxiko dira kanpoko igerilekuak.

Baina igerilekuak berri batek inbertsio handia eskatzen du, eta politikoen erabakien zain gaude, erakundeetatik dirulaguntza jasotzea ezinbestekoa zaigulako. Momentuz, ez dago ezer berririk honen inguruan".

#### DESKONTUA

Hemendik urte bukaera bitartean Kirol Zerbitzuko karneta egiterakoan, %40ko

deskontua egingo da. Ondorioz, nagusiek (18 urtetik gorakoek) 8.820 pezeta ordaindu beharko dute karneta eginez gero, eta 18 urtetik beherakoek 5.760 pezeta. Gaur egun, 4.000 bazkide inguru dituzte igerilekuek.

Zapatuan amaituko den uda kanpainari dagokionez, aurtengo udan iazkoaren antzeko datuak eman dira, Kirol Zerbitzuko iturrien

arabera. Maiatzean, karneta zuten 6.900 lagun sarrera zenbatu baziren, kanpoko igerilekuak zabaldukoan kopuru horrek nabarmen egin zuen gora. Ekainean, 14.540 sarrera izan ziren (12.393 aurreko urtean); uztailan 18.330 (18.190 iaz) eta abuztuan 9.382 (99an 11.360), beti ere karnetarekin sartu direnak bakarrik kontutan hartuta. Sarrera gehien, aurtengoa, uztailaren 6an zenbatu ziren: 1.446 hain zuzen. Aipatutako datuei eguneroko sarrera ordaintzeagatik sartu direnak (alboko koadroan) gehitu behar zaizkie. Kirol Zerbitzuko arduradunaren arabera, uda kanpaina ondo joan da, eta ez da aparteko nobedaderik izan. Eguraldi ona egin izan duen egunetan jende asko joan izan da kanpoko piszinetara, batez ere arratsaldean.

#### MANTENIMENDU GIMNASIA ETA AEROBIKA

Bestalde, aerobik eta mantenimendu gimnasia ikastaroei astelehenean hasiera eman zitzaion. Kirol Zerbitzuko bazkideek, hileroko kuota ordaintzerakoan, 900 pezetako deskontua dute.

#### Udan saldutako bono eta sarrerak

	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
Sarrerak (-18 urte).....	1.488	1.487	516
Bonoak (-18 urte).....	138	71	14
Sarrerak (+18 urte).....	736	1.222	1.025
Bonoak (+18 urte).....	51	37	12



## Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

## IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

## Xakea asteburuan protagonista

**Xake** astearekin jarraituz, domekan, hilak 17, Bergara Hiria taldekako txapelketaren XXIX. edizioa jokatuko da, 10:00etatik aurrera, Miguel Altuna institutuko edifizio berrian. 20 bat talde izango dira lehian. Bergarako Xake taldea ordezkatzu, Jabier Ugarte, Andres Diez, Jabier Bizarro, Roman Labaien eta Juanma Garcia izango dira. Miguel Angel Muela Xake taldeko ordezkariaren iritziz, "txapelketa prestigio handia lortu du, eta maila handiko jokalaria etorri dira azken urteotan". Domekako txapelketan, Errioxa, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Euskal Autonomi Erkidegoko jokalaria bilduko dira.

Domekan bertan, eguerdiko 12:00etan, xake lehian



Domekan 20 bat talde izango dira lehian.

ARTXIBOA

keta konbinatua jokatuko da Goierri eta Deba bailarako taldeen artean, eta arratsaldean, 17:00etan, xake partida azkarren txapelketa irekia izango da.

### EUSKADIKO TXAPELKETA

Aurretik, zapatuan, xake azkarreko Euskadiko Txapel-

keta antolatu du Bergarako Xake taldeak, goizeko 10:00etan, Miguel Altuna institutu berrian. Aldi berean, klubun arteko adiskidetasun zirkuitua ere jokatuko da. Xakea, beraz, astebukera honetako protagonista nagusietako bat izango dugu.

## Pilota partiduak bihar, zapatua

**Bihar, zapatua**, pilota jaialdia izango da Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Bigarren partiduan Salaberria-Imaz eta Etxaniz-Otxandorena izango dira aurrez aurre.

## Eskubaloi taldearen deia

**Eskubaloian** aritu nahi diren 12-16 urteko neska mutikoei martitzenean, hilak 19, 18:00etan Kiroldegian izango den entrenamendura joateko dei egiten zaie.

## Goitibehera txapelketa

**Euskal Herriko** goitibehera txapelketarako proba puntuagarria jokatuko da zapatuan 16:00etan Asentziotik Angiozarrera.

## Kirol ikastaroak irailean


**Eskola kirola** monitorentzako ikastaroa eta piraguismo ikastaroak izango dira irailean. Argibideak: 943 77 91 67.

## Egoitza berriaren inaugurazioa

**Joan zen** domekan, eguerdiz, Bergara Bike herriko motozale taldearen egoitza berria inauguratu zen San Lorentzoko lehen zenbakian. Aurretik, 30 bat lagun inguruk, eguraldi ona aprobetxatuz, kostalderaino bi orduko irteera egin zuten, eta bueltan, lokala inauguratzeko, luntxa banatu zen egoitza berrian. Domekako ekitaldietan Oñati eta Arrasateko motozaleek ere hartu zuten parte. Oraingoan, 31 lagun dira Bergara Bike taldean.




Argazkian, Bergara Bike taldea osatzen duten motorzale batzuk.



Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA  
KIROLAK**



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

San Pedro 21      Zubillaga z/g  
BERGARA      OÑATI  
943 76 20 49      943 78 24 13

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



**IGOR GUTIERREZ/ Pilotaria**

**“Tekniko samarra naiz, baina kolpea falta zait”**

**Aranzeta elgetarrarekin batera bikotea osatuz, Antiguoko promesen txapelketako finala galdu zuen Igor Gutierrezek (23 urte), 18-22ko emaitzarekin, Sorarrain eta Zapirainen aurka.**

**G.** Zer gertatu zen Antiguoko finalean?  
**E.** Nahiko ondo jokatzeko ari ginen, baina momentu klabe bat izan zen partiduan. 15-11ko emaitzarekin irabazten geundela, Sorarrainek sake egin zuen, eta Aranzetak bolez erantzun; txapatik gora jo zuen pilotak, eta justu-justu barruan sartu. Hasieran guri eman ziguten tantoa, baina epaileen eztabaidaren ondoren, 15-12koa etorri zen. 18-16 aurretik ere jarri ginen, baina hor geratu ginen, eta ezin izan genuen txapela jantzi. Datorren urtean lehen mailako txapelketan parte hartzea gustatuko litzaidake.  
**G.** Zelako pilotaria zara?  
**E.** Segurua naizela uste dut, huts gutxi egiten dut normalean. Tekniko samarra naiz, baina kolpea falta zait.


**G.** Gustoko pilotari bat?  
**E.** Aimar Olaizola.  
**G.** Datorren denboraldirako zein asmo?  
**E.** Ander Muguruzarekin edo Edu Samaniegorekin klubaren arteko Gipuzkoako lehen mailako txapelketa jokatu dut, Euskal Herriko txapelketarako sailkatzeko asmoz.  
**G.** Horrez gain, entrenatzaile lanetan ere bazabiltza.  
**E.** Gipuzkoako Federaziotik Deba bialarako Eskola Pilotako koordinatzailea izango naiz eta Bergarako jubenilekin eta seniorrekin ere lan tekniko eta fisikoa egingo dut aurten; gainera, astia baldin badaukat, ume txikiekin ere ibiliko naiz monitore lanetan.  
**G.** Zer moduzko harrobia duzu Bergaran?

**E.** Harrobia badago. Gertatzen da kategoria ezberdinen arteko saltoa handiegia izaten dela batzuetan. Kategoria bakoitzean pilotari gehiago izatea komeniko litzateke.  
**G.** Nolatan pilotari bat futbol taldeko prestatzaile fisikoa?

**E.** IVEFeko ikasketak amaitu nituen ekainean, eta Iñigo Zaitetik proposatu zidan. Ez naiz sekula futbolzalea izan, baina oso gustora ari naiz, taldean oso giro ona dagoelako.

**G.** Noiz emango du taldeak bere mailarik onena?

**E.** Nahiko berandu hasi ginen entrenamenduekin, eta azaro-abendu aldera jokalaria, fisiko aldetik, finago egongo direla uste dut.



**School of English**

Informazioa:

Ibargarai 31 Barruko plaza  
 Tf eta faxa 943 76 03 53

e-posta:

espolonschool@teleline.es

Orduetgia:

10:00-12:30 eta

16:30-19:30

astelehenetik eguakitzera

**2000-2001 ikasturteko matrikula zabalik  
 Klaseak, goizez, eguerdiz eta arratsaldez**

**INGELES**

- Haurrak, gazteak, helduak
- Enpresetarako ingeles tekniko eta komertziala
- Azterketa ofizialeterako prestaketa
- Ordutegi bereziak: komertzioak, erreleboak, etxekoandreak...

**Zorionak denoi CAMBRIDGE UNIVERSITYko azterketetako emaitzengatik!**

**Young learners: %100 aprobatuta**

**KET: %100 aprobatuta**

**PET: % 75 aprobatuta**

**First Certificate: % 93 aprobatuta**

**Advanced: %100 aprobatuta**

# Bergarak Bermeoren bisita jasoko du zapatuan, 16:30ean, Agorrosinen

**Bergarak** Bermeoren aurka jokatuko du, bihar, zapatua, 16:30ean, Agorrosinen. Juanina Garairen mutilek hasiera ezin hobea eman diote Liga txapelketari, jokatuako bi partiduak irabazi baitutuzte.

Domekan, Zornotzan, 0-1eko emaitzarekin nagusitu zitzaizkion Amorebieta taldeari. Bergarrek azken minutuan lortu zuten garaipena, Aritz Arabiourrutiak jaurtitako penalti bati esker. 90. Minutuan, Gorka San Vicente ate aurrean bakarrik geratzera zihoanean, Amorebieta taldeko defentsa batek falta egin zion area barruan, eta epaileak penaltia adierazi zuen. Joan zen urtean Mirandes taldean aritu zen Arabiourrutia arrasatearrak ez zuen penalti puntutik barkatu, eta Txolongo zelai berrian Bergarak hiru puntuak lortu zituen. Lehen bi jardunaldiak jokatu ondoren, mahoneroak sailkapeneko bigarren postuan



Aritz Arabiourrutia sartu zuen garaipenaren gola domekan Zornotzan.

dira sei punturekin. Durango eta Unibertsitatea taldeekin batera, sei puntuak lortu dituzten bakarrak dira. Aritz Arabiourrutia golegilearen arabera, domekako partidua ez zen batere erraza izan: "Bero handia egiten zuen, eta partidu gogorra izan zen. Lehen zatian, beharbada, gu izan ginen nagusi, baina bigarrenean berriek dominatu zuten jokoa. Hala ere, zortea izan genuen gure alde adierazitako

penaltiarekin". Juanina Garai entrenatzailearen usteetan, berdinketa agian justoago izango zen, "baina horrelako partiduetan askotan galdu egiten duzu, eta tonto aurpegia geratzen zaizu. Domekan gauzak ondo atara zitzaizkigun, eta oso inportantea da txapelketa ondo hastea, Liga luzea baita".


Bihar, zapatua, Bergarak Bermeo hartuko du etxean. Bizkaitarrak iaz 2. B mailan aritu ziren, eta aurten ez

diote hasiera onik eman Ligari, puntu bakar bat lortu baitute. Azken jardunaldian, Lemoaren aurka, 3-1eko emaitzarekin galdu zuten bermeotarrek. Bihar garaipena lortuz gero, lasaitasun handiagoz jokatuko lituzke Bergarak hurrengo partiduak. Hala ere, Garaik adierazi digunez, ez da partidu erraza izango; ez du Bermeo taldea ondo ezagutzen, baina bere taldeak gogor borrokatu beharko du hirugarren garaipena jarraian lortzeko. Baliteke lehen jardunaldian zelairatutako hamaikakoan, aldaketa bat edo beste egitea entrenatzaileak. Mahoneroek lau egunez entrenatu dute astean.

## KADETEAK ERE ZAPATUAN

Bestalde, Mikel Fernandezek entrenatzen duen bigarren mailako kadete futbol taldeak Ondarroako Aurrearen aurka jokatu du zapatuan, 18:30etik aurrera Ipintzako zelaian.

# Samadhi yoga



- Yogoterapia eta erlajazioaren zentrua
- **Adin guztietarako**
- Jubilatuentzako prezio bereziak
- Ikastaroa irailaren 25ean hasiko da
- Izena emateko: goizez: 12:30-13:00; arratsaldez: 19:30-20:15

Kruz Gallastegi 2, behea. Tf. 639 235 753 / 943 76 11 38

**Irailaren 24an, domekan, inauguratuko dugu, eguerdiko 12:30ean!**

# GASTON Y DANIELA



**Inglesina**®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

## INGLESA FRANTSESA ALEMANA



## STONE HOUSE HIZKUNTZAK

**2000/01 IKASTURTERAKO  
MATRIKULA ZABALIK**  
Ikasturtearen hasiera urriaren 2an

**HELBIDE BERRIA**  
Tel.: 943 76 06 87

**UNEDetik  
Ibargarai 18ra  
aldu gara**

- Filologian lizentziatutako irakasleak, natibo kualifikatuak eta esperientziadunak
- Talde txikiak
- Maila guztiak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez
- Umeendako hasiera-ikastaroak: 6 urtetik aurrera
- Gazte eta nagusientzat
- Azterketa ofizialen prestaketa
- Hiru hilabeteko ikastaro intentsiboak
- Ikastaro trinkoak larunbat goizetan



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Barrenkalea.  
656 732 026 (egunez)  
edo 943 35 39 91 (gauez).

Barrenkalea.  
943 76 44 34.

Aranerreak. Jantzia.  
75 m<sup>2</sup>. 629 655 195.

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Ara-  
nerrekan. 943 76 07 77.

Iraburun (Bolu), 87 m<sup>2</sup>.  
943 76 08 47.

**EROSI**

Etxea erosiko nuke Ber-  
garan. 943 76 38 25.

Herri erdialdeko lehen  
solairu bat edo etxabea  
erosiko nuke.  
609 413 211  
(20:30etik aurrera).

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamentu txikia Ma-  
txiategin. 943 76 12 05  
(20:00etatik aurrera).

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Etxeko logelak aloka-  
tzen ditut. 943 76 43 95.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.  
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

2. GARAJEAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

3. LOKALAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

4. LANA  
Eskaintzak  
Eskakerak  
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA  
Eskaintzak  
Eskakerak  
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

7. ANIMALIAK  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

8. DENETARIK  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

9. HARREMANAK  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartu-  
ko nuke. 678 212 657.

Pisua hartuko genuke  
alokairuan Bergaran.  
696 782 176 (Loli) edo  
630 712 318 (Marta).

Etxea alokatuko nuke.  
Jantzia. 90.000 pta.  
arte ordaintzeko gertu  
nago. Presazkoa da.  
649 790 90.

Etxea alokatu edo ero-  
siko nuke Bergaran edo  
inguruan. 94 446 43 84  
/ 659 506 679.

Etxea alokatuko genuke  
Bergaran edo Antzuo-  
lan. 943 76 39 16.

San Antonio-Labega-  
rieta inguruan.  
943 76 18 73.

**ETXE KONPARTITUAZ**

Pisu bila dabilen neska  
bat naiz. Alokairuan  
daukazu pisua osatze-  
ko lagun baten beharre-  
an bazaude deitu  
iezadazu 20:00etatik  
aurrera. 656 773 637.

Lagun bat nahi dut

Bergarako nire pisua  
konpartitzeko.  
636 004 385 (Joseba).

**2. GARAJEAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Santa Marina.  
Deitu 943 76 37 69  
telefonora.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea edo lokal  
komertziala hartuko  
nuke alokairuan. 40-60  
m<sup>2</sup>koa. 646 673 204.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Lokala alokairuan herri  
erdian. 120 m<sup>2</sup>.  
617 025 376.

Koldo Eleizalden, be-  
hea, 50 m<sup>2</sup>. 943 76 37 69.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

52 urteko emakumeak  
umeak zaindu edo etxe-  
ko lanak egingo lituzke.  
943 76 09 95.

Umeak zaintzen edo  
antzeko zerbituetan lan  
egingo nuke.  
Deitu 943 76 00 90  
telefonora.

Tabernan, tailerrean  
edo dendan lan egingo  
lukeen 35 urteko mutila  
naiz. Esperientzia.  
Informatika ezagutzak.  
610 972 250 (Antxon).

Geriatrian espezializa-  
tutako klinika laguntzai-  
leak zaharrak edo gai-  
soak zainduko lituzke.  
Deitu 609 770 133  
telefonora.

Neskak garbiketa lanak  
egingo lituzke jatetxe  
batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke  
uztailetik irailera bitar-  
tean. 943 76 39 91.

**ESKAERAK**

Antzuolan, pertsona bat  
behar da etxeko lanak  
egin eta umea zaintze-  
ko. 943 76 61 04.

Emakume euskalduna  
behar da goizez emaku-  
me edadetua zaintzeko.  
Deitu 943 76 36 52  
telefonora.

Emakumea behar da  
Antzuolan etxeko lanak  
egiteko. 943 76 60 80.

# CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES AND DIPLOMAS  
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



## University of Cambridge Local Examinations Syndicate International Examinations

### Matrikulak irailaren 18tik 28ra AZTERKETAK ETA DATAK

First Certificate English (Papers 1,2,3) . . . . .	Abenduak 16 (larun.)
First Certificate English (Pap. 4,5) . . . . .	Abenduak 2 (larun.)
Cambridge Advanced English (Pap. 1,2,3) . . .	Abenduak 13 (asteaz.)
Cambridge Advanced English (Pap. 4,5) . . . . .	Abenduak 2 (larun.)
Cambridge Proficiency English (Pap. 1,2,3) . .	Abenduak 14 (oste.)
Cambridge Proficiency English (Pap. 4,5) . . . .	Abenduak 2 (larun.)
Business English Certificate 1 (Pap. 1,2,3) . . .	Abenduak 2 (larun.)
Business English Certificate 2 (Pap. 1,2,3) . . .	Azaroak 17 (osti.)
Business English Certificate 3 (Pap. 1,2,3) . . .	Azaroak 25 (larun.)

CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE EIBAR ES-438

**INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK:**

<b>ARRASATE</b>	Parlance	943 77 06 83
<b>BERGARA</b>	<b>Espolon School of English</b>	<b>943 76 03 53</b>
<b>DURANGO</b>	Compubit English Institute	94 620 20 20
<b>EIBAR</b>	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
	Ukitze	943 70 25 59
<b>ELGOIBAR</b>	Key Ingeles Akademia	943 74 30 44
	Kensington School of English	943 74 02 36
<b>LEKEITIO</b>	Anglo-American Link	630 538 076
<b>ONDARROA</b>	Howdy Academy	94 613 43 26
<b>OÑATI</b>	A & M School of English	943 71 61 37

**5. IRAKASKUNTZA****ESKAINTZAK**

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak ematen ditut. Esperientzia. 943 76 30 28 / 659 331 741 (Ana).

Klase partikularrak ematen ditugu. 943 76 31 31 (Juanma) edo 943 76 42 08 (Nere).

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Idoia).

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 943 76 39 61 telefonora.

Eskola partikularrak ematen ditut. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

**ESKAERAK**

Conta Plus klaseak hartuko nituzke. 943 76 27 51.

Ingeniaritzako ikasleak kimikako eskolak hartuko lituzke. 943 76 22 95.

**6. IBILGAILUAK****SALDU**

Opel Kadett (SS-AL). 667 088 484.

Opel Corsa 1.3. 200.000 pta. 943 78 71 31.

Seat Ibiza 1.2i. 1992. 60.000 km. 400.000 pta. 943 76 50 86.

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

**7. ANIMALIAK****SALDU**

Sei hileko hispaniel arra, 11 hileko seter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persak, 2 hilabete-koak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

**BESTELAKOAK**

Bi urteko katu siamesa opari, ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

**8. DENETARIK****SALDU**

Tronpeta berria. 943 78 70 52.

Genio 2000. Prezio ona. Deitu 943 78 70 52 telefonora.

Ileapaindegiko altxariak eta materiala. Merke. Deitu 943 76 25 38 telefonora.

Lasterketa bizikleta. Prezio ona. Deitu 943 76 23 68 telefonora.

Marrazteko mahaia eta aulkia. 943 76 41 96.

Play Station: txipa, 2 agente eta jokoak. Deitu 666 466 969 telefonora.

Inesca Viena karro- denda salgai. Deitu 943 76 43 80 telefonora.

Wip-it piragua. Osagarriekin. 150.000 pta. Deitu 943 79 78 36 telefonora.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa salgai. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela.

5.000 pta. 943 76 07 50.

Egongelako altzaria. Ia berria. 2,8 m. luze. Deitu 943 76 41 31 telefonora.

Batzeko moduko karabana salgai. 943 76 58 05 / 41 55.

**EROSI**

Bigarren eskuko umendako kotxea erosi-ko nuke (bikientzat). 677 367 733 (Irika).

Bigarren eskuko ordenagailua erosi-ko nuke. 943 76 47 67.

**GALDU**


Alkandora horia galdu nuen abuztu hasieran Bergara inguruan. Eskertuko da. 943 76 27 83 / 14 03.

**AURKITU**

Erlojua topatu dut Gorlan. 943 76 25 01.

**BESTELAKOAK**

Txakurra edukitzeko txabola behar dut. Deitu 607 448 531 telefonora.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**INFORMATIKOA LHII**  
Ibaizabal. 37925/1**TORNULARIA LHII**  
Deba behe. 37937/1**INFORMATIKA**  
**IRAKASLEA**  
Bilbo. 37885/2**INFORMATIKA**  
**IRAKASLEA**  
Bilbo. 37883/2**INFORMATIKA**  
**IRAKASLEAK 2**  
Deba Garaia. 36927/2**INFORMATIKA**  
**IRAKASLEAK**  
Bilbo. 36206/4**INFORMATIKA**  
**LIZENTZIATUA**  
Guenes. 37882/3**TELEKOMUNIKAZIOE-**  
**TAKO TEKNIKARIA**  
Gasteiz. 37727/1**FRESATZAILEA**  
Gasteiz. 36964/2**SISTEMEN**  
**TEKNIKARIA**  
Bilbo. 36716/2**SKI SAILERAKO**  
**DENDARIA**  
Donostia. 37696/1**SEINALIZAZIO**  
**LANETARAKO**  
**LANGILEA**  
Debabarrena. 37433/9**INFORMATIKA**  
**IRAKASLEA**  
Arratia. 37107/4**SUKALDARIA**  
Amurrio. 35279/3**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 35525/1**IGELTSEROAK 2**  
Bilbo. 35759/3**SEGURTASUN**  
**ZAINDARIAK**  
Donostia. 35411/4**APAREJADOREA**  
Bilbo. 36445/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Debagoieneko komunikazio enpresa batek

## TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste zerbitzuen ardura izango du.

**Eskatzen da:**

- Kazetari izatea, telebistan esperientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasuna.
- Euskararen eta ordenagailuen erabileran maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.


**Eskaintzen da:**

- Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Etorkizun handiko proiektuan partaide izatea.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali,  
irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

## ELUSKA ZABALO



oleo erakusketa

### NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

## ARANE KRISTALDEGIA

Erakustoki berria

Artekalea 18, behea.  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

## JANTZIEN KOMERTZIOA

traspasatzen da  
ezin delako  
atenditu

619 517 655

## Siglo XXI enpresak berriztuko du Loreley kafetegi zaharreko mosaikoa


Dagoeneko Bilbon dago, eta zazpi hilabete iraungo dute errestaurazio lanek

Joan den egueneko plenoan onartutakoaren arabera, Siglo XXI Bilboko enpresak errestauratuko du mosaikoa. Victoriano Arizabaletak, mosaikoaren jabeak, ekainean eman zion Udalari. Honek, kontserbazio egoera kaskarrean zegoela ikusita, Aitziber Manterola eta Jone Mateo errestauratzaileei adjudikatu zien lana. Errestauratzaile hauek, baina, uko egin diote, eta, ondorioz, Bilboko enpresa arduratuko da lanaz. Lanak 5.260.948 pezetako aurrekontua izango du.

Mosaikoa eguakitzean eraman zuten Bilbora, Siglo XXI enpresaren tailerrera. Abuztu hasierarako, sei paneltan desmontatuta zegoen, eta Kultura Etxean gordeta. Manterola eta Mateo errestauratzaileek desmontatu zuten, nahiz eta gero lana bertan behera utzi.

Mosaikoa kalte handia jasaten ari zen bere atzetik pasatzen zen tuberia bat hautsi eta hezetasun handia zegoelako. Horren ondorioz, mosaikoa bonbatu egin zen, berau osatzen duten panelak juntetatik zabaltzen hasi ziren eta teselak erortzen hasi zitzaizkion.

Zazpi hilabeteen errestauratuko du Siglo XXI enpresak mosaikoa, eta aurrekontua, esan bezala, 5.260.948 pezetakoa da. Berriztu ostean, kutxa berezietan gordeko ditu panelak, eta Bergarara ekarri. Udalak kokaleku berria erabakitzen duen arte aipatutako kutxetan egongo da gordeta.



Mosaikoa, Iñaki Landak egindako alegoria da. Gaur egun, artista nahiko kotizatua da. BERGARAKO UDALA

### LORELEY APAINTZEKO

Mosaikoa, Loreley apaintzeko egin zen, beraz, kafetegiak adina urte ditu: berrogei urte inguru. Garai hartan, nahiko normala zen kafetegi eta banketxeak apaintzeko mosaiko, fresko edo kuadro handiak erabiltzea.

Loreley zaharrekoa, Bergaran dagoen mosaiko bakarra da, eta Euskal Herrian ere ez dago asko.

### MOSAIKO BALIOTSUA

Xabier Aranburu Udal Museologoa-ren esanetan, oso ondo landuta dago. Detaleak oso onak dira, eta argilunekin ondo jokatu du egileak. Bestalde, teselak mailakatuta daude; ez da mosaiko plano, eta honek ere jantzi egiten du mosaikoa.

Sei bider hiru metro ditu, eta bertan sei pertsona agertzen dira, gizon eta emakumeak, garaiko jantziekin. Bergarako armaria ere ikus daiteke eta Errege Mintegia fondoan.

### ARTISTA BILBOTARRA

Iñaki Landa bilbotarra (1932-1991) izan zen mosaikoaren egilea. Landa, artista profesionala zen, eta mosaikoez gain, bidrierak diseinatu zituen eta baita margotu ere, elizak esaterako. Gaur egun, artista nahikoa kotizatua da.

Loreley kafetegia dekoratu zuen bezala, ezagunak dira Bilbon Landak bere pinturrekin dekoratutako beste lau kafetegi: bi Gran Vian eta beste bi Deustuan.

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## Dixula

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

## Josune Fernandez eta Alex Torrek dantza denboraldi borobila

**Josune Fernandez** eta Alex Torre gazteek dantzari finak direla argi utzi dute aurtengo denboraldian. Laupabost urterekin hasi ziren dantzan ikasten. Zazpirekin txapelketetan parte hartzen, eta aurten, hamahirurekin, Bergaran Pazkuetan jokatzeko den hamabost urteko beherakoendako Euskadiko Txapelketan lehenengo saria lortu zuten hogeita zazpi bikoteren artean. Horixe da, hain zuzen ere, orain arteko lorpenik handiena euren hitzetan. Baita entsaiu gogorrenak eskatu dizkien proba ere.

Denboraldia martxoan hasita, Euskadiko Txapelketa heldu bitartean hiru txapelketatan hartu zuten parte. Erman bigarren geratu ziren eta Lazkaron hirugarren. Bergarako lorpenaren ostean, lehenengo sari gehiago ere eraman dituzte etxera: Gipuzkoako Txapelketa, eta Gasteiz, Elgeta eta Donostian jokaturako lehiaketak, esaterako.

### MAILA NAGUSIRA HELTZeko GOGOIA

Josune eta Alex oso pozik daude aurtengo emaitzekin, eta uda partean ondo aritu direla azaldu dute. Gainera, oso gustuko dute dantza, eta aurrera jarraitzeko gogo handia dute, batez ere nagusietara jauzi egiteko, hau da, ha-



Josunek eta Alexek 9 urte daramate dantzan.

mabost urtetik gorakoetara. Jauzi hori egiteko datorren urtea baino ez zaie geratzen, eta gogotsu dauden arren, beldur apur bat ere ematen diela gaineratu dute, "ia berriz zerotik hastea bezala" izango dela uste baitute.

## Hainbat kontzertu San Martinetan Gazte lokalaren aldeko taldeak antolatuta

**Gazte Lokalaren** aldeko taldeak hainbat kontzertu antolatu ditu, egitarau ofizialetik kanpo, San Martin jaietarako. Gaur, eguakitza, gaueko 22:30ean Kartzela Zaharrean izango da lehenengo kontzertua. Emanaldi horretan, Donostiako Señor No eta Astrozombies

eta Bergarako The Elevators taldeek hartuko dute parte.

Bigarrena, bihar, zapatua, izango da, gaueko 22:30ean. Bigarren kontzertu horretan, Aretxabaletako Serial Numbers eta Bergarako X-at taldeak arituko dira Kartzela Zaharrean.

### erreseinak



**Pako Aristi**  
**Venezuela,**  
**iraultza isilaren hitzak**  
Kronika

Aldaketa sakonei ekin diete Venezuelako agintariek herriak hala eskatzen duelako. Halaber, dirudunak, ia mundu guztiko hedabideak eta iazko uholdeak ere aurkari izan ditu Chavezen "iraultza baketsuak". Egoeraren bereziaz ohartuta, Pako Aristi Venezuelan izan da aurten, eta herri honen gaur egungo ildoa, aldaketan nondik-norakoa, herritarren iritzia, bertan dauden euskal errefuxiatuen egoera eta bidaiari ahaztezin baten kronika bildu ditu idazleak.

- Txalaparta. 150 orr. 1.800 pta.



**Batzuk**  
**Free, Mumia**  
**Abu-Jamal**  
Hip-hop

Mumia Abu-Jamal kazetari estatu-batuarrak hamazazpi urte daramatza "heriotzaren pasealekuan" Filadelfiako polizia bat hil izana leporatzen baitiote. Bere erruduntasuna frogatu gabe dago; are gehiago, kasua hasieratik moldatua egon delako frogak daude, eta Filadelfiako hainbat polizia ere tartean omen dira. "Free, Mumia Abu-Jamal", Esan Ozenki Recordsek kaleratutako diskoak, muga guztien gainetik elkartasun oihartzun bat izan nahi du. CD bikoitza da, eta bertan hip-hopa egiten duten mundu osoko talde zein bakarlariak daude. Fermin Muguruzak ere parte hartzen du "Nazio ibiltaria naiz" kantarekin.

- Esan Ozenki Records. 2.500 pta.

## BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejok dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

## ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUNA

**Ezker eskuma**

1. Arboladiak. 2. Ahuntzaren arra. ... de Janeiro, Brasilgo hiria. 3. Euskal mitologiako jeinua. Enparantza. 4. XII. Hilabetea. Aluminioa. 5. Zori-jokoa. Metal-mota. 6. Sindikatu aberzalea. Arnas ezak hila. Potasioa. 7. Tantalioa. Beldurtua. 8. Bokala. Garoa. Azkenekoa. Har ezak! 9. Detektagailuak. Kontsonantea. 10. Labore-hautsa. Gizon izena.

**Goitik behera**

1. Portuko langile. 2. Esku itxia. Ez eme. 3. Hiruz zatitzearen emaitza bakoitza. Zezen zikiratu. 4. Pisu txikikoa. Asiako estatua. 5. Iridioa. Bostehun. Mairidorea. 6. Helburuak, planak eta asmoak alferrik galdu. Rötgen. 7. Tona. Eguzkiak jotzen ez dituen aldeak. 8. Garoa. Nauka. Suari dario. 9. Adi ezak! Kanpo. Fosforoa. 10. Australiako ugaztunak. Zintzoa.

**Soluzioa**

Ona.  
9. Alzak. At. P. 10. Koalæk.  
7. T. Laitozak. 8. Ira. Nau. Ke.  
5. Ir. D. Izara. 6. Zaputzu. R.  
3. Herena. Idi. 4. Arina. Iran.  
1. Zamaletari. 2. Ukalbita. Ar.  
Goitik behera  
N. 10. Irna. Kapa.  
8. A. Ira. Z. To. 9. Radarrak.  
Itoa. K. 7. Ta. Izutua.  
Al. 5. Kina. Zinka. 6. Ela.  
3. Mari. Plaza. 4. Abendua.  
1. Zuhaztitak. 2. Akerria. Rio.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein da baserri honen izena?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein izango da herriko rock taldeek entsaiatzeko izango duten egoitza berria?  
A- Seminarioan jarraituko dute  
B- Zabalotegiko aretoa  
C- Goiko estazioko geltoki zaharra
2. Nola du izena Bergarako motozale taldeak?  
A- Scratch  
B- Bergara Bike  
C- Motor racing
3. Herriko zein eraikuntza famatu agertzen da Iñaki Landaren mosaikoan?  
A- Udaletxea  
B- Errege Mintegia  
C- Olaso dorrea



**Super BMk** emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Luis Mari Egañarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Luis Mariri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
Bonofotoa: **San Pedro** kaletik Zabalotegira  
Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-B**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Leader Price**  
oliba olio 0,4\* litroa  
**349 PTA!**  
**Super BMen beti eskaintzarik onenak!**



**Ion Landak 31 urte ditu eta duela 14 urtetik ari da igeltsero lanian. Olabarria igeltserotzan dihardu eta oso gustoko dau bere lana. Argazkilaritza da bere hobby nagusixa, ikastaro bat egin eta afiziñua hartu zebanetik.**

## Ion Landa

### Zer moduz doiaz Sanmartiñak?

Ondo; gaiñera bi despedida eduki dittut astebukeran eta oso ondo pasatu dot.

### Aukeran, Sanmartiñak ala Pazkuak?

Bixak.

### Jaixetan argazkirik ateratzen dozu?

Ez, jaixetan jai, ez naiz argazkixak ateratzen ibiltzen.

### Zela hartu ziñuan argazkilaritzarako afiziñua?

EPAko taillerretan argazkilaritzako ikastaro bat egin nebanetik daukat.

### Atera dozun argazkirik kuttunena?

Mendixan izotz kandela bati atera notsana, zuri-beltzian.

### Zeñi egingo zontzake erretratua?

Amari eta aittari.

### Zeu fotojenikua zara?

Ez dost inporta izaten argazkixak ateratzia, baiña ez dot uste fotojenikua naizenik.

### Flasheatu zaittuen norbait?

Iñobez.

### Zure lanian gehixen gustatzen jatzuna?

Mazua hartu eta apurtzia, paretak botatzia gustatzen jat.

### Eta gutxien?

Kañerixak garbitzia.

### Aldatuko ziñuke?

Momentuz ez behintzat, gustora nabil lanian.

### Aitortu leiken bizio bat?

Juergia.

### Eta manixa bat?

Ez dakit, baiña ez dot uste manixarik daukatenik.

### Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Apur bat gastau eta beste apur bat, berriz, gorde.

### Zela definituko ziñuke zeure burua?

Irekixa naiz, egixa esan igual irekiegixa, ez dakit neretako gorde bihar dotena gordetzen.

### Zerk jartzen zaittu haserre bizian?

Gauza batek ez dostenian urtetzen nahi neban moduan.

### Eta pozez saltoka?

Ez jat sekula pasatu, baiña loterixia tokatu ezkeru, pozez saltoka hasiko nitzakela uste dot.

### Egunkarixa, irratixa ala telebista?

Hiruretatik pixka bat.

### Egunkarixan, zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Euskal Herriko notiziak.

### Telebistan saiorik gustokuena?


“Bertatik bertara” eta “Goenkale”; albistegixak be gustatzen jat.

### Zeñi egingo zontzake elkarrizketa hau?

Nere lankidiei.



# Trikiti eskola



### Irakasleak:

Panderoa: Aitziber Gezalaga

Soinua: Eider Zubillaga

### Noiz:

Urritik ekainera

### Non:

Kartzela zaharrean

### Egunak:

Panderoa: Astelehen eta eguakitzetan, 16etatik 21etara

Soinua: martitzen eta eguaztenetan, 16etatik 21etara

Zapatuetan, 9etatik 14etara

### Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean

Soinua: 2.650 PTA hilean



## San Martinetako danborradan

Aste honetan bertan gaur gaueko danborradan parte hartuko duten taldeek entsaiuak izan dituzte Seminarioan. Bildutako elkarte eta taldeek ibilbideko kaleak alaituko dituzte, eta, ohizkoa denez, danborradari San Martin plazan emango zaio bukaera.

Goiko argazkia 1970eko hamarkadaren hasierakoa da. Bertan agertzen den neska koardilak elkarte bat ordezkatzuz hartuko zuen parte, txapela, alkandora txuria eta gona urdina jantzita. Ziur primeran pasatuko zutela. Gainera, komentatu digutenez, orduan ohitura zegoen danborradan parte hartzen zutenak, hurrengo astean-edo, Santa Agedara joateko. Bertan

jaialdi moduko bat egiten zuten. Argazkia Udal Pilotalekuan ateratakoa da, eta hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Angelita Agirrebeña, Elisabet Beistegi, Irene Jauregi, Mertxe Zapata, Belen Azkarate, Amaia Altube, Mertxe Etxeberria, Blanca Polanco, Mariaje Ibañez eta Pili Fernandez de Retana.

**Makurtuta:** Jose Mari Uribeberria, Lorea Arregi, Ana Mari Etxaniz (atzerago), Maria Jesus Uribeberria, Pili Ortiz de Zarate (atzerago), Rosarito Ruiz, Konsuelo Errasti, Nati Murguruza eta Maria Jesus Prat.

*Argazkia: B.U.A. Roman Larrañaga fondoa*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

### Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59



## Zumelaga

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



## MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Jokaldirik onena!



ARKO

## 2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE  
maila guztiak.

EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa, etab.

### Erritmoak

2 ordukoa (iraila-ekaina).

3 ordukoa (iraila-ekaina).

5 ordukoa

(iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).

Astean bi egunean 2 ordu eta erdi  
(EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo  
batzuk ere eskain daitezke.

Galde ezazu!

### Bulego ordutegia

Goizez: 08:30-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

### Matrikulatzeko epea

Irailaren 4tik 20ra.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzeko sistema eta diru  
laguntzak ditugu.

# BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net **edo** berg.euskudal@euskalnet.net



HABEren dirulaguntza.



**GRUPO**  
**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

**a eme Interiores**  
 Garibai 9. 943 79 15 03

**Centro Hogar Muebles**  
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**Sofa Leku**  
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

**a eme Sukaldeak**  
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**ARRASATE**

